

BARNETIK KANPORA

GASTEIZKO KOROAZIO AUZOKO ETXE-
SAIL BATEN BERRANTOLATZE ETA BA-
LIOAN JARTZEA.



gRADU aMAIERAKO IAANA

Ikaslea: **Gilen Txintxurreta Beitia**

Tutorea: **Ula Iruretagoiena Busturia**

Enbor zaharretik kimu berria:

Gasteizko Koroazio auzoa Urrezko auzo deituriko horietariko bat da, 50 urtetik gora dituzten auzoak hain zuzen ere. 50eko hamarkada amaierako industrializazioaren garaian eraikia, auzo trinko eta dinamikoa da, hiriko biztanleria dentsitatearik altuena duena. Baina denbora ez da deialde pasatzen, eta beste auzo batzuek izan dezaketen kutsu erromantiko, historiko edo monumentalik gabe, urteen poderioz zaharkituta geratzen joan den auzoa da.

Hirien garapen jasangarri baterako barrurantz haztea eta zauriak sendatzea balioan jartzen den momentu honetan, aukera paregabea aurkezten digu Koroazio auzoak dinamizazio, berregituratze, txukuntze eta orokorrean, bizi kalitatearen hobekuntza nabari baten laborategi gisa funtzionatzeko.

Aurkibidea:

Kokapena eta testuingurua	3
Araba	4
Gasteiz	6
Koroazio Auzoa	8
Proiektua eta estrategiak	14
Proiektua:	15
Auzo Maila	16
Etxesail Maila	17
Etxebizitza Sistema	18
Birgaitze estrategia	19
Planoak	20
Oinak	21
Ebaketak	28
Atal teknikoa	33

Hirien dimanika.

Badirudi arkitektura berria denaz mintzo dela. Eraiki, sortu, egin, paisaia eraldatu, honetara moldatu, joera berrietara egokitu, berritu. Hiri zaharren auzo berriak izan dira arkitekturaren ohikotzat dugunaren jomuga, eta badira oraindik, bai hemen eta bai munduan zehar haziz doazen lekuetan. Kale zabalak parke handiak aire libre eta eraikin berriak, egungo bikote gazte moderno autodun eta txakurdunaren (semeetarako diru edo gogorik ez antza) paradigma izan dira, utopia txikia kontsumoaren mundu honetan.

Hiri zaharretako auzo zaharrei, eta ez horren zarrei buruz hitz egin nahiko nuke baina. Estu, ilun eta zikinak sarritan, erosle potentzialaren, hiritar estandarraren jomugatik urrunduz doaz pixkanaka pixkanaka. Auzo hauen artean alde zaharrak, XIX mendeko zabalgunek eta XX mendeko espantsioak aurki ditzakegu. Lehenengo biek xarma arkitektonikoa izan ohi dute, eraikin ikusgarri eta forma atseginak. Hori dela eta, gure gizartearen ekonomiaren tertziarizazioak potentzial turistikoa aurkitu die, eta inbertsio publiko eta pribatuak egiten dira sarri haien egoera aldatzeko eta azken finean, haietatik etekina ateratzeko. Baina badago beste auzo mota bat, garai, momentu konkretu baten ondorioz Wsortu zena eta egun inongo babes eta laguntzarik gabe gutxinaka gutxinaka hiriaren eskema berrian galtzen ari dena.

Garrantzikoa da auzo hauen nondik norakoa ulertzea baina, gure aiton amonak haietan bizi baitziren eta gure gurasoak hazi eta hezi. 50-60ko hamarkadetan gure herrialdeak garapen ekonomiko itzela jasan zuen. Penintsulako puntu guztietako jendea iritsi zen gurera, lan aukera baten bila, landa bizitzaren penuriak atzean utzi nahian. Hiriek azkar hazi behar izan zuten, zegoenaren gainean edo lurraldean zehar hedatuz, eta hala oso auzo ezberdinak sortu ziren, batzuk trinkoak, besteak irekiak, mugimendu modernoari jarraiki, batzuk antolatuak eta besteak tropelean bata bestearen gainean pilatuak. Ezaugarri orokor bat bazuten baina, orokorrean material merke eginak izaten ziren, hormigoia eta adreiluz, isolamendurik gabe berokuntza merke baitzen (gasolina betiko zela uste zen alajaina!) eta sarritan igogailurik gabe ere, azken finean, obreroak ziren bertan bizi ziren gehienak. Gure arbasoak gazte iritsi ziren auzo haietara eta bertan eraiki zuten bizitza eta familia.

Ordutik hona 60 urte pasa dira, "ta ezer ez da berdin".

Ondo datorkie urrezko auzo izena gasteizko zenbaiti, eraikitzen hasi zirenetik urrezko ezteiak aspaldi egin baitzituzten. Eta ezteiak bete dituzten agure bikoteek bezalaxe, mai-tasuna hor dago, baina garaiak aldatu dira, indarrak ahulduz doaz eta aspaldi geratu ziren bidean sorpresa eta aldaketetarako garaiak. Analogia berarekin, ia gure aiton amonak zaharkitu diren bezalaxe zaharkitu da auzoa. Gasteiztarrok gasteiztar berri gara gehien-bat. Bi belaunaldiko sustraiak ditugu gehienez gutariko erdia baino gehiagok, hori baino lehen, auskalo arabar zein gipuzkoar batzuk, estremadurar edo burgostar beste asko. 50eko hamarkada amaierak iritsi ziren gure aiton amonak hirira, industrializazioaren be-rotan probintzia hiriburu txikia zena tamainaz eta biztanlez hirukoiztu zen mende laurden eskasean.

Iristean etxea eskuratu zuten askok eta askok, eta bertan egin dute bizia eta familia, bertan jaio dira seme alabak eta ospatu gabonak, eta haietan jasotzen dituzte opariak orain hilobek. Baina 60 urte pasa diren momentu honetan, hiriaren demografian des-oreka nabarmen bat ematen ari da. Arrapaladan iritsi ziren biztanleak auzo beretsuetan finkatu ziren, eta elkarrekin nagusitu eta zahartu dira. Errekurtso ekonomiko itzelik izan ez, eta etxez gutxi aldatu izanak, auzo berberetan elkarrekin zaharkitu den biztanleriaren kapa handi bat geratu da. Gazteak, bien bitartean, auzo berri eta gaur egungo bizimodu- ra (edo gaur egungo bizimodutzat saldu digutenera) hobeto egokitutako auzoetara egin dute ihes.

2018 urte honetan, beraz, azken urteetan geroz eta nabarmenagoa zen joera baten konklusioak atera ditu udaletxeak, Urrezko auzo deiturikoak birgaitzeko plan bat plazaratu-z. Bien bitartean eta 10 urtetik gorako historia duen ekimen baten loreak irekitzen ha-siko direla dirudi. Koroazio auzoa birgaitzeko proiektu bat, Smart-en City, aurkeztu zuen Udalak European eta Lighthouse project deritzolakoen barruan sartu dute, milioi zaparrada kudeatzea tokatuko da.

Dena den, Smart City etiketarekin salduta, birgaitze energetikotik askoz haratago ez doan proiektu bat darama aurrera udaletxeak. Honetarako gainera, VISESA eusko jaurlaritzaren etxebizitza agentziaren gidaritza aukeratu da, eta administrazioarekin sarritan gertatu ohi denez, malgutasunak ez dirudi leku askorik izango duenik prozesuan.



Puntu honetan dago nire ustez egingo denaren eta egin beharko litzatekeenaren arteko disentsio puntua, politikaren errealismoa eta aktibismoaren idealismoa. Udalak kuantifi-katu, baloratu eta nolabaiteko reditua atera diezaiokeen proiektu bat defendatzen du, irudi bat, zerbait egin dela esan ahal izateko txapatxo bat jarriko du golkoan, eta nola kexatuko da inor, diru eta denbora eskaini baitzaio kontuari. Hala ere, portal batean adostasuna lortzea zaila bada, imajinatu 1.200 etxe hartzen dituen auzo batean tamaina honetako proiektu bat aurrera eramateko eta, eta hemen dago betiko kontua, familia bakoitzak dirua jartzeko adostasunak lortzea.

Udaletxeak beraz nahiago izan du bide errazetik jo eta bai, informazio kanpainak burutu dira eta hizketaldiak antolatu dira, baina, azken finean, kontsultoria bati eta konstruktora bati enkargatu die egin beharrekoaren gidaritza. Hau da, parte hartzea soilik jada eraba-kita dagoenari oniritzia ematean geratzen da.


Hirigintzak beste bide batzuk jorratu behar dituelako konbentzimenduekin, proiektu ho-netan bilatu dena, lortu izana zalantzan jarrita, auzoaren egituraren inguruko gogoeta bat bultzatzea izan da, haren funtzionamendua, aukera eta beharrak aztertuz eta ahal den neurrian eta proiektu bat aurkeztearen inperatibopean, soluzio bat plazaratu.

KOKAPENA ETA TESTUINGURUA






Biztanleria dentsitatea:



65 urtetik gorako biztanleak:



Errenta pertsonala:




ARABA, ESKUALDE MAKROZEFALIKOA:

XX. mendean zehar Europa eta Amerika eta XXI. mendean zehar urbanizazio prozesu bat jasan dute gizarteek. Landa eremuetako bizimodaren gogortasun zein aukera urritasunak batetik eta hiri industrialek behar zuten eskulanak eskaintzen zuten aukerek bestetik, hirietako biztanleriaren hazkunde esponentziala eragin dute, 2030 urterako munduko biztanleriaren erdia hirietan biziko dela kalkulatzeko delarik. Honek lurraldearen antropizazio eta eraldaketak ere eragin izan ditu, hiri hauek beharrezko dituzten erabilera, zerbitzu, edo hondakinak jasotzeko balio dutenak.

Zenbait kasutan, hirietara iristen den biztanleria eskualdean zehar zabaldu egiten da eta nukleo ezberdinen hazkundera ematen da, lurralde multipolar bat sortuz, normalean hiri nagusi baten inguruan orbitatzen duten zenbait herri ertain edo handirekin, euren kasa funtzionatzen dutenak ia modu autonomoan eta hiriburuarekiko dependenteak direnak soilik kasu konkretuetan. Eredu hauek genituzke Gipuzkoa eta Bizkaiaren kasuan esate baterako. Beste kasu batzuetan, hiri bakar batek bereganatzen du biztanleria berri guztia eta hiri honek izugarriko hazkundera jasaten du. Hau da Araba eta Gasteizen kasua.

50eko hamarkadan Gipuzkoa eta Bizkaiako haranetan industriak hazteko espazio fisiko urria izanik, eta araban eremu lau oso aproposak egonda, zenbait lantegi Gasteizera mugitu ziren, bertako administrazioak abantaila fiskalak eskaini zituelarik. Honela, probintziako hiriburu administratibo soilak zena hiri industrial bihurtu zen, eta etorkinak jasotzen hasi zen. Asko inguruko probintzietatik eta Estremaduratik etorriak ziren, eta beste asko Arabako gainerako herrietatik bertatik. Araban esponja efektu bat eman zen, hiriburuak inguru osoko biztanleria xurgatzen zuelarik. Honela, probintziak bere izaera rurala mantendu zuen, landa eremuari, nekazaritza eta abeltzantzari lotua, herri txikietan antolatua,

Arabako 10 biztanleria nukleo nagusiak:



eta Gasteiz gero eta handiagoa zen hiri industrial bihurtzen joan zen, iman baten gisa inguruko jendea erakarrit.

Makrozefalia:

Makrozefalia herrialdezein hiri batek botere ekonomiko politiko eta kultural guztiak hiri konkretu batean, hiriburuan normalean, kontzentratzeari esaten zaio. Modelo honetan, hiriburuak bere inguruko eskualdeak baino askoz ere pisu handiagoa du bai ekonomian, sektore aurreratuen eta balio erantsi gehienekoak biltzen baititu, baita politikan, bertan biltzen baitira administrazio, korporazio eta alderdiak, eta baita kulturean, hirigune kosmopolitek jendearen eta ideien interakzioa eragiten baitute, sarritan produkzio artistiko edo kulturala eragiten duten interakzioak izanik. Honela, hiriak bere inguru zuzena ekliptatu egiten du, bigarren plano batean utziz eta zenbaitetan, baztertu eginaz, hiriaren nagusitasun moral sentsazio batekin, landatar jendea mespretxatzera ailegatuz.

Araba, mutur hauetara iritxi gabe, probintzia makrozefaliko da. Biztanleriaren %75 Gasteizen bizi da, bertan biltzen dira eskualdeko administrazio nagusi guztiak eta industriagune nagusi denak. Kirol ekitaldiak zein gainerako ekitaldi kulturalak bertan biltzen dira eta unibertsitate edo hoi mailako ikasketak guztiak hiriburuan burutu beharrekoak dira. Honetaz gain, EAEko hiriburu izanik, Gobernuaren egoitza zein bulego nagusiak bertan aurki ditzakegu, hiriaren garrantzia bere tamainak iradokitzen duenaz haratago egonik.

Lurraldearen antolaketa honek hiriburuaren gailentze argi bat eragiten du alor guztietan, eta berez aukera gutxi dituen landa eremuak alde batera uzte prozesu bat pairatzen du.

Ondorio nagusiak:

Ekonomikoak:

Jarduera ekonomikoak burutzera herrietako jendea nukleo nagusietara, kasu honetan, Gasteizera nagusiki, mugitzen da. Honek herrietako ekonomietan eman zitekeen pizkundea zaildu egiten du biztanleek jada euren kontsumo beharrak hiri zentrolean asetzen baitituzte.

Sozialak:

Nukleoarekiko dependentsiak harreman interpersonalk bertan burutzea eragiten du, hurbilagokoa eginez hiriko pertsona bat herriko auzokidea baino. Herri txikiak, tradizionalki kohesio eta elkarbizitza eredu izan direnak, harreman afektiboen hurbiltasunaren muga apurtzearekin batera, euren elkarbizitza eta komunitate sorrerara gaitasuna galdu dute nolabait. Globala (mikroeskala honetan), lokala ordezkatu du.

Demografikoak:


Ondoriorik argienetariko bat gazteek hirira burutu duten migrazioa da. Migrazio hau historikoki existitu den arren, azken urteetan nekazaritza eta abeltzantza bezalako jardueren merkatu globalizatuan konpetitzeko ezintasunak are zailago egin du gurea bezalako inguruan orain arte bezala lanean jarraitzeak, eta etorkizunerako perspektiba ilun horiekin, gazte jende gehiena, herrian bizita edo nolabaiteko lotura mantenduta ere, hirira mugitzen da nagusiki.

Konparatiba:


Antzeko problematika zein ondorioak aurki ditzakegu Gasteizko auzo zaharretan. Baria-bleak aldatzen badira ere, (jarduera ekonomikoen erakarlea ez da beste hiri bat, merkatal zentro bat baizik), ondorioak antzekoak dira, jende gazteak euren gurasoen auzoak utzi eta beste berriago batzuetara mugitzen dira, hauzok hauek zaharkitzen eta degradatzen joanaz. Ziklikoa dirudien prozesu honek, hemendik 30-40 urtera erakutsiko al ditu gaur egun gazteak diren auzoetan orain auzo zaharretan pairatzen diren problematikak?

Degradazio prozesu honi aurre egiteko modu bakarra auzo integratzaileen eraikuntzan jardutea da, interes, adin eta jatorri ezberdineko ahalik eta jende gehienaren bilgune izan daitekeena, biztanleria bere kabuz erregeneratuz eta dinamizatuz.

GASTEIZ
1/20.000



Hiriaren garapen historikoa:



GASTEIZ:

Gasteiz hiria, arabar lautadaren erdian kokatuta dagoen 250.000 biztanleko hiria da. Euskal Autonomia erkidegoko hiriburua izanik, zentro administratibo garrantzitsua da eta baita gune industrial garrantzitsua ere.

Muino baten inguruan hazi den hiria da, oso astiro hasieran eta oso azkar duela mende erditik hona, beraz ez du hazkunde erregular eta geldoa izan duten hirietan hauteman daitekeen forma edo antolakuntza erradiala. Garai ezberdinetan eraikitako auzoak erraz identifikatzen dira bakoitzak duen tramaren arabera. Garai klasikoetan (XX mendera artea) eraikitako hiria oso txikia da, eta hazkunde gehienak 60ko hamarkadatik aurrera eman zirenez, poligono bakoitzak forma identifikagarri bat du.

Guztira bost hiri trama identifika ditzakegu guztira, eta haietako batzuk garaikideak izanagatik ere oso izaera ezberdinekoak dira.

Alde Zaharra:

1181 urtean sortua, muinoaren gailurrean hiru kale paralelo bidez antolatzen zen herrixka hesitu bat bezala, Nafarroako Antso VI erregeak sortu zuen erreinuaren mugetako hiribuldu defentsa lerroaren barne.

Hurrengo mendeetan zehar muinoaren alde bietara barreiatu zen herrixka, gaur egun horren ezaguna den almendra forma hartuz. Horaindi harresiz inguratuta egongo zen eta

mende luzez. XVIII mendean Olagibel arkitektoak Arkilloen eta plaza berriaren eraikuntza bidez muinoaren eta beheko lautadaren arteko kota diferentzia gainditu zuen plaza sistema baten bidez. Momentu honetatik aurrera hiriaren garapena hegoalderuntz izango zen, egungo zabalgunea edo Zentro deritzon distritoa eratuz. XIX mendean eraiki bazen ere, ez zuen Bilbo edo Donostioek bezala forma garbi eta planifikatu bat jarraituko, lurren jabeen interesek ezinezkoa egin baitzuten zabalkunde ortogonalago bat. 1950 urte inguruan apenas zituen 50.000 biztanle, nahiko konpaktua zen hirian bizitzen, gutxi gora behera muinotik trenbideraino hartzen zuen eremua eta hegoalderago zeuden ezzenbait etxe isolatu.

Garai hartan industrializazio prozesu batek izugarritzko biztanleria hazkunde eragingo du. Gasteiz izango da penintsula osoan 1950-1975 tartean gehien haziko den probintzia hiriburua, bere biztanleria hirukoiztuz, 50.000 izatetik 1954an, 175.000 izan arte 1975 ean. Biztanle hauek asko Arabako gainerako herrietatik etorriko ziren biztanleatariko asko, landa lurren desertizazioan lagunduz, eta beste asko inguruko probintzietatik iritsiko ziren. Extremaduratik etorritako biztanleen kopurua ere harrigarriki altua izango da leku honen hurruntasuna kontutan hartuta.


Momentu horretara arte existitzen zer hiria txiki geratu zen eta auzo berriak eraikitzen hasi ziren. Garai hartan 1954ko plan orokorra zegoen indarrean, eta nolabait eraikuntza guztiz modu anarkikoan garatu ez izana ekidin zen, beste hiriburu batzuetan gertatu ziren desastreak ekidinea. Aipatzekoa da Gasteizen hiri planeamenduaren inguruan egon den kontrol eta jarraitutasunak nahiko modu kontrolatuko hazkundeak ahalbidetu izan

dituztela, hazkan hamarkadetan izan ezik, non, aurreikuspenen gehiegizko optimismo batek eta espekulazioaren sari mamitsuak izugarri gaindimensionatutako auzoak sortu dituzten, Lakua, Salburua eta Zabalana hain zuzen ere.

50-60ko hamarkadetan sortutako auzoetako bat da koroazio auzoa. Tramari dagokionez etxe irlaz osatutako auzo trinkoa da, b+5 eta b+6 altuerako eraikinak dituelarik auzoaren gehiengoan. Hiriko biztanleria dentsitate altueneko auzoa da, errenta baxuenetarikoa den bezalaxe, eta nolabaiteko gethifikazio prozesu baten lehenengo zantzuak antzeman daitezke bertan, non errekurtsio urriko klaseko jendea bildu eta bazterketa - autobazterketa prozesuak eman daitezkeen.

KOROAZIO AUZOA

1/5.000



Europa kongresu jauregia:

Auzoan bertan ez badago ere, Gasteiz etorbidearen beste aldean dago, auzoarekin mugan. Hiri eta probintzia mailako ekipamendu publikoa da, bertan kongresu eta hiri mailako ekitaldiak burutzen baitira, baina aldi berean bere auzoko kiroldegi eta igerilekuak ditu. Beraz, erabilera dualeko eraikin interesgarria dugu.

Atlas gimnasioa:

Ekipamendu pribatu bat bada ere bere garrantzia hiri mailakoa da ia ia, auzo ezberinetako jendea biltzen duelarik,

Aldabe gizartetxea:

Kirol, kultura eta hezkuntza beharrak asetzen dituen auzo mailako ekipamendua, gasteizko auzo bakoitzak bat duelarik. Elkartzte puntu garrantzitsua adin guztietako jendearentzat.

Koroazio parrokia:

Miguel Fisac arkitekto ezagunak diseinatu, oso elementu berezi eta esanguratsua da, egun dekadentzia eroria

San Mateo parrokia

Auzoaren ertzean egonda, ez da Fisac ena bezain berezia baina bere garaiko estetika formalari erantzuten dio, eraikin interesgarria bihurtuaz

Ikastetxeak:

Auzoan bertan bi ikastetxe handi ditugu, Niño Jesus, lehen hezkuntzako eta Presentacion de Maria, nagusia-goentzako. Honetaz gain, goi heziketa zentro bat dago Iparraldeko parkean, koroazio auzoarekin harreman estuan.

Merkatuak:

Etxesailen barnealdean zenbaitetan ausaz merkatu batzuk aurki ditzakegu. Antzina oso ohikoa zen auzo bakoitzak bere merkatutza izatea, eta ohitura horren ondorio dira egun etxesailetan ia ahazturik dauden eraikin hauek. Egun oso postu gutxi dira irekita, leku itxiak eta txukundu gabeak baitira, baina haien berreskurapena oso garrantzitsua

Osasun zentroak:

Vithas San Jose hospitala dago koroazio auzoan, auzo mailako ekipamendua ez izanagatik ere, elementu zentrala da auzoaren ideosinkrasian.

KOROAZIO AUZOA:

Aurreko guztia betetzen du Koronazio auzoak. Gasteizko muinoaren ipar mendebaldean kokatuta, XIX mende hasieran bazen jada arrabal moduko bat, baina 50 eta bereziki 60ko hamarkadan izugarri hasiko zen auzo hau. 1940 1970 bitartean Gasteizko biztanleria hirukoiztu egin zen, luraren merketzeari esker bertan industria ugari finkatu baitziren, espainia osoko eta inguruko euskal probintzietako jendea erakarrit. Honen ondorioz, zenbait auzo berri eraiki behar izan ziren, Koronazioa, Lovaina eta El Anglo besteak beste. Azkar eraiki ziren eta aipatu bezala material pobreekin.

Auzoak humil izaten jarraitzen dute baina biztanleak zaharkitu egin dira. Haien seme alabak hiriko beste leku batzuetan bizi dira orohar, eta biztanleria piramidearen burua kezkarri handia da. Jaiotza tasak ez du inondik inora heriotza tasa ordezkatzen eta azken urteetan gorada bat egon bada ere, hutsune handia dago 20-30 urteko biztanleria tartean. Garai berean eta adin beretsuarekin iritsitako jende pilak demografiaren jarrera olatu batenaren antzekoa izatea eragin du. Biztanleria asko hasi zen jatorrizko auzokideek seme alabak izatean, baina hauek beste auzo batzuetara mugitu ziren, gaur egun gertatzen ari den bezalaxe, eta honen ondorioz haien seme alabek ez dute generazio aldaketa gauzatu.

Egun, auzoaren gainbeherak etxebizitzaren prezioaren jaitxiera ekarri du, eta honek errekurtso gutxien dutenak auzora iristea eragin du. Etorkin tasa Gasteizko altuenetarikoa da, alde zaharrarekin batera. Aldi berean langabezia tasa ere hiriko altuenetarikoa da eta

errentak ordea baxuenetarikoa. Egoera honek agian oso garrantzitsua ez den gai batean izugarriko eragina du, baina ikusiko dugun bezala gizartearen injustizia handietako baten oinarria da. Errenta baxu hauek eta langabezia edo prekarietate egoerak auzokideen zati garrantzitsu bat bere etxebizitzaren jabe ez izatea eragiten du, hau da, alokairuan bizi dira. Gerora aztertuko dugun bezala, Gasteizko alokairu merkatua ez da oso ugaria, eta honek etxebizitzaren jabeek prezioan gehiegi lehiatu behar ez izatea eragiten du. Hone-l, alokairuak oso altuak izan ez arren, proportzionalki garestiagoak dira auzo txiroetan auzo aberatsetan baino, eta honek jabeentzako errentagarritasun handiagoa adierazten du. Hone-l, kuantitatiboki auzo txiro bateko biztanle batek auzo aberats batekoak baino gutxiago ordaintzen badu ere, bere irabazien askoz portzentai handiagoa izango da hau, eskklusio egoera areagotuz.

Smart-en City







2012 urtean Gasteiz Europako hiriburua berde gisa izendatua izan zen, eta honek bultzada bat suposatu zuen ekologiarekin zerikusia zeukaten proiektuak aurrera eramateko. Esan beharra dago ordurarte egindako proiektu garrantzitsuenak egokiak izan baziren ere (eraztun berdearen eraketa, Salburuako parkearen berreskurapena, migukortasun zerbitzu ekologikoagoak erabiltzea eta gizarte kontzientziarioa izango lirateke esanguratsuenak), saria jaso eta gorora eginiko gehienak interbentzio estetikoak izan dira, sakontasun gehiegi gabeak. Europa jauregiaren fatxada berdea edo Gasteiz hiribidearen erreforma benetan ekologiarekin zerikusi gehiegirik ez dutenak, eta zer esanik ez soziologiarekin. Hala eta guztiz ere, eta Europar diru laguntza bati esker, Koronazio auzoan zaharberitze

proiektu bat proposatu da azken urteetan. Proposamen honek auzoaren zati baten (Aldabe) garbiketa bat egitea du helburu, espazio publikoen eta kaleen berrantolaketa edo txukuntze bat, eraikinen birgaitze energetikoa eta irisgarritasun bermea, eta beereziki, auzo osoa hornituko duen biomasa galdara bat. Proiektu hau bai dagoela sakonki lotuta ekologiarekin eta auzoa berriro balorizatzeko aukera bikaina izan daiteke.

Proiektuak 1313 etxebizitzari (Auzoaren %21.5) erasango dio, eta etxebizitza hauen fatxada eta estalkiaren birgaitzearen bidez energia kontsumoa erdira murriztean oinarritzen da. Bide beretik biomasaren erabilerak, auzo mailako ur bero sare bat ezarrit (Estokolmoko Hammarby Sjöstad bezalako auzo berrietan oso emaitza honekin erabiltzen dena), efizientzia asko hobetuko litzateke eta negutegi efektuko gasak nabarmen murriztu.


Hirigintza aldetik zenbait kale eta bidegurutzetan peatonalizazio eta urbanizazio aldaketa proiektuak proposatzen dira. Hauen helburua autoaren presentzia auzoko kale estuetan murriztea izango da, eta egun bidegurutze diren puntuak plazaxo gisa aprobetxatzea, parterre berdeak kenduz eta lurzoru ibilgarria handituz. Puntu honetan esan beharra dago auzoak apenas daukala plazarik bere barnean, eta are gutxiago parkerik. Zuhaitzak beste edozein auzotan baino urriagoak dira (Alde zaharra salbu) eta espazio publikoa oso kalitate eskasekoa dela, dauden plaza eskasetan sarritan aurkitzen baititugu mazeta, jardinera, parterre eta antzeko elementuak, erabiltzen ezinezkoa den berde apur bat eskuratzeko oinezkoentzako funtsezkoa den espazio ugari galduarazten duena.

Auzoa zenbakitan



Ehun ekonomikoa

Establezimendu kopurua:	998
Langile kopurua:	3.215
Establezimenduetako lanaren bariazioa:	%4,3
Nekazaritza eta arrantza	1
Industria eta energia	24
Eraikuntza	76
Merkataritza, hostalaritza eta garraioak	448
Banka aseguruak eta enpresei zerbitzuak	330
Beste zerbitzuak	119



Etxebizitzen azalera

0-30m	1
31-60m	453
61-90m	3.514
91-120m	1.654
121-150m	402
150+m	75

Problematika:

Auzoraen analisia hiru gorputzetan dago egituratuta eta baita honen problematiken azterketa ere.

- Biztanleria.
- Ekonomia.
- Etxebizitza.

Biztanleria:

Koroazio Auzoko biztanleriak hiru patroiri erantzuten dio. Beheraka doa, zahartzen ari da eta atzerritarren portzentaia geroz eta handiagoa da.

Aipatu bezala jatorrizko biztanleak 60-70eko hamarkadetan iritsi ziren eta bigarren belaunaldiak generazio aldaketa mantendu badu ere, hirugarren belaunaldia askoz ere urriagoa da. Azken urteetan hazkunde begetatiboa negatiboa da eta biztanleriak behera egin du nabarmen. 2008tik 2017ra bitartean 13.416 biztanle izatetik 12.025 izatera pasa da.%10,37ko jaitsiera.*(Biztanle etxebizitzako?).

Zaharkitze prozesua ere aurrera doa. 0-14 urte bitartekoen portzentaia %10,12koa da (Gasteiz %14,81), eta adinekoena berriz %32,5 (Gasteiz %20,3). Behar bereziak izaten ditu biztanleria adinduak eta auzoa ez dago erabat prestatuta gidoi aldaketa honi aurre egiteko, irisgarritasuna ez dago bermatuta eraikin guztietan, eta adinekoen bakartze eta marginazioa eragiten duten harremanetarako esparruak, direla plazarak direla ekipamenduak ez dira ugari (Aldabe gizarte etxea auzoaren punturik altuenean).

Biztanleria etorkinari dagokionean, ez da berez arazo bat, baina normalean errekurtsu urriekin eta gizarte laguntza bereziekin lotuta dagoen fenomenoak izaten da, biztanleriaren sektorerik ahulena izan ohi da. 1.999 biztanle atzerritar bizi dira auzoan %16,6 hain zuzen ere (Gasteiz %8,88). Kontutan izan behar da lehenengo belaunaldiko etorkin hauek gazte edo heldu iritsi ohi direla gurera, seme alabak izateko adinean, beraz, etorkin eta hauen

semeen kopurua nabarmen handiagoa izan daiteke, honela, auzoaren batz besteko adina gaztetu izana posible da. Kulturen arteko harremana oso onuragarria izan daiteke elkarbizitarako eta urkoa ulertzen laguntzeko, baina zenbaitetan arazoak ere egon ohi dira. Koroazio auzoko mekitaren aurkako erasoak egon izan dira azken urteetan, eta oso marginalak badira ere, jarrera arrazistok giroa kaltetzen dute. elkarbizitza zailduz.

Ekonomia:

Ekonomiaren azterketan ere hiru ardatz jorratuko dira:Ekonomia sektore garrantzitsuenak, aktibitate eta langabezia tasak eta errenta.

Auzoan 998 lokal daude. %44 komertzio, ostalaritza edo garraio zerbitzuetan jarduten du, % 33ak Banka edo aseguru sektorekoak dira, eta gainerako sektoreak ez dira %10era ailegatzten. Auzoko establezimenduetan 3.215 pertsonak egiten du lan, gehienak ikusten dugunez hirugarren sektorean.

Aktibitate tasa %34,2koa da, 4.006 pertsonarekin, (Gasteiz %45,3) nahiko baxua beraz. Honek harreman zuzena du 65 urtetik gorako biztanleriarekin. Langabezia tasa larriki altua da, Gasteizko altuenetakoa izanda %21ekoa hain zuzen ere (Gasteiz %12,57).


Errentari dagokionean, kontrakoa gertatzen da, baxuenetakoa izango da familiaren errenta urtean 31.374E koa izanik (Gasteiz 38.432E).

Etxebizitza:

Eraikinen %75etik gora 1970 baino lehenago eraiki zen geihenak (4.702) 1950-1970 tartean. Azterketa baten faltan arazorik ohikoenak irisgarritasunerako moldatuak ez izana eta isolamendu gaitasun eskasa aipa daitezke. Isolamenduaren arloa bereziki garrantzitsua da, izugarriko energia kontsumoa eskatzen baidute eraikin ez babestuek, eta honek elektrizitate eta gas fakturak asko garestitzen ditu, auzo pobre batean lehen mailako arazoa bihurtuz.

Etxebizitzen okupazio eta jabetzak ere arazo bat planteatzen du. Gaur egun etxebizitzen

%25 dago alokairuan eta beste %11 hutsik. Kantitate hauek oso ezohikoak dira gurean, eta temporalidade fenomenoak eragitea dakar. Sarritan auzo hauetan bizi den jendea epe laburretarako bizi da, beste tokiren batean etxebizitza lortzen duen bitartean, eta erabili eta botatzko funtzionamendu honek etxebizitzak berak kaltetzeaz gain, egonkorra ez den eta auzokidetzaren harremanak garatzen ez dituen hiritarrak sortzen ditu, espazioaren erabilera ez aktibadoreak.




Udaletxearen auzoa: Coronacion

Udaletxearen dokumentu guztietan koroazio auzoaren mugak hauek dira. 11.000 biztanle ingururekin eta 6.500 etxebizitza inguru dituela gasteizko auzorik dentsuena da alde zahararekin batera.

Auzo bezala ulertzen bada ere, Supermanzanen proiektuaren barruan auzoaren zati bat erdialdeko supermanzanaren barruan dago eta auzoaren gainerakoa beste hiru sektoretan banatuta dago., dena den, apenas eraman dira aurrera peatonalizazio eta egokitzapen lanak.

Eremu honi auzo administratiboa deituko diogu.




Errealitate historikoaren auzoa:

Koroazio auzoa urte gutxian (1950-1970) eraikitako auzoa izan zen, baina urte haietan eman ziren teknika aldatetok etxeen kalitatearen arteko desberdintasunak nabariak izatea eragiten du.

Hala eta guztiz ere, koroazio auzoaren zatirik handiena 5-10 urteko tartean eraiki zen, 1958-1965 urteen artean, eta etxebizitza hauek guztiek oso antzeko ezaugarriak dituzte. Zaharkitzea ere oso antzekoa izan da auzo osoan, balkoiak itxizeta leihoak ordezkatzuz joan dira leku guztietan, itxura kaotiko xamarra emanaz osotasunari.

Auzo garaikidea dugu hau




Smarten City aren auzoa.

Europako Lighthouse proiektuen barne Gasteizko proiektu bat aurkeztu zuen, zahartutako auzo baten birgaitze integrala, ikuspuntu sozial eta ekologikotik. Proiektu honetarako Koroazio auzoa izan zen aukeratua, dena den, auzoaren zati batek soilik kontutan hartu da proiektua aurrera eramateko.

Auzoaren zatirik zaharrena izateaz gain, Alde Zaharretik hurbilen dagoen zatia da aukeratutakoa, beraz nolabati aurpegi garbitze proiektu bat izan daitekeela susma daiteke.

Eremu honi aukeraren auzoa deituko diogu.




Identitatearen Auzoa: Errota

Antzinako Santo Domingo elizaren ondarretan dago Errotazahar auzoaren jatorria, eta hiriaren iparraldeko arrabal honetan zegoen errota batek ematen dio izena. Auzo bizitza, elkarteetako partaidetza eta antzeko iarduerak burutzen dituztenek zona hau dute euren auzo gisa.

Dela eraikinen eraikuntza garaia gatazka delako bestelako interesen batzuegatik, Domingo Beltran de Otazu kaletik mendebaldera dagoen auzo zatia auzoko elkarteak ez du bere parte bezala ulertzen.

Mendebaldeko auzoaren zati honi identitatearen auzoa esango diogu.

Bederatzi enparantza.




Plazen Ibilbidea:


Gasteizko alde zaharra, zabalkundea eta Koroazio auzoa hiriko auzorik dentsuena dira seguruenik, espazio publiko gutxien eta etxebizitza dentsitate altuena dutenak.

Hala eta guztiz ere, lehenengo bi auzoek kalitate oso altuko espazio publikoa dute, plaza txiki sare bat, haien artean metro gutxik banatuak, hiri sare bizi eta eder bat osatzen dute, noizean behin hiri fatxaden artean irekidura txikiak agertzen direlarik, elkarbizitzarako, komertziorako eta aisirako irekiguneak.

Plazatorik esanguratsuenak muinoa mendebaldetik hagoalderun tz inguratzen duen arkuak zehar aurki ditzakegu. Lerro honetan egun 8 plaza aurki ditzakegu, baina bederatzigarren bat agertu daiteke Koroazio auzoaren bihotzean, auzo mailako plaza nagusia izatera detitua dagoena eta plazen segida honi hasiera duin bat emango diona.



-1 Koroazio plaza
4.570m²




-6 Plaza Berria
4.750m²




-2 Aldabe Plaza
2.150m²




-7. Foru Enparantza
7.095m²



-3 Marques de la Alameda plaza
820m²



-8. Santa Barbara Enparantza
12.390m²




-4. Diputazio Plaza
2.960m²



-5. Andra Maria zuriaren Enparantza
5.790m²



-9 Jesus Maria Leizaola Plazatxoa Koroazio plaza
2.170m²



Aldabe gizartetxearen etxesaila:




Koronazio auzoaren muturrean kokatuta, alde zaharrarekiko elkartze puntuan bidegurutze natural baten eskina osatzen du etxesail triangular honek. Gasteizko komenturik handienetako bat, Santo Domingoren komentua bertan zegoen, baina XXmende hasiera bere hondamendi egoeraren ondorioz, eraitxia izan zen, urteetan zehar erabilera ezberdinak izan zituelarik eremuak, azkenean Aldabe gizarte etxea eraiki zen arte, 90eko hamarkadan.

Etxesail honen barruan hutxune bat geratu da, gainerako guztietan gertatu ez dena, eta gaur egun guztiz desaprobatuta dago, aparkaleku bat bakarrik baita. Orotara, auozan geratzen den espazio liberik handiena da barne patio hau, eta bidegurutze izaerak, plaza ezberdinak elkartzen dituen ibilbide baten jatorri izateak, inguruan dituen eraikin publikoekin batera, auzoaren birgaitze prozesu batean pieza esanguratsu izatera deituta dagoen elementu bihurtzen du atzealde hau.

Badago barnealde honetan beste eraikin bat garrantzitsua ez bere forma baizik eta kokapenagatik. Gaur egun Arriaga aparkalekua den eraikinak, hormigoizko egitura sendo batekin, udaletxeak plazaren erdian aurreikusten duen biomasa galdaren edukiontzi izateko potentzial aproposa du.

Gaur egungo egoera:

Eskala: 1/500



Arriaga garajearen eraikina:

Arriaga garajea 1959an eraiki zen, ia etxebizitza eraikinak bezalaxe. Hormigoizko egitura portikatu batek eta altzairuzko zertxa batek osatzen dute, egitura simple baina liraina sortuz. Gaur egun, eta planoetan agertzen ez bada ere, aparkalekuek etxebizitzaren sotoa ere hartzen dute, hauek etxe irlaren barruan kanpoan baino nahiko kota baxuagoa baitu.

Artxibo historikoa:

Plano historikoak Gasteizko udal artxibotik eskuratuak izan dira. Bertan ondoren egindako birgaitzeak ere agertu beharko liriteke baina kutxitan dira guztiz fidagarriak planoak, hauek diotena eta errealitatean dagoenaren artean diferentziak nabariak baitira.

Portal de Arriaga kaleko 5. zenbakian dago kokatuta garajea, eta honetaz gain Koronacion kaleko 20. etxebizitzako planoak ere eskatu ziren, garajerako sarrera bertatik egiteko baita.

Fatxada:

Fatxada material eta eraikuntza teknika ezberdin ugariaren arteko nahasketa bat da. Behe solairua 50cm zabal da eta behealdean begiratu ezkerreko harlanduzkoa dela baldin badirudi ere, honen gainean argi ikusten dira hormigoizko zenbait zutabe, bigarren solairuraino igotzen direnak. Karga horma eta zutabeen arteko erdibidean dagoela dirudi. Hala eta guztiz ere leihoen tamaina ikusita hormigoizko dintel baten beharra argia da.



PROIEKTUA ETA ESTRATEGIAK




Proiektuak auzoaren problematikak hiru eskala ezberdinetan aztertu nahi izan ditu. Eskala orokorrean, auzo mailari dagokionean, kongestio eta espazio publikoaren kalitate eta bizigarritasun eskasaren zergatiak aztertu eta honi konponbide emateko jarraitu beharreko irizpideak zeintzuk izan zitezkeen lirakeen ikusi nahi izan da. Interbentzio hauek eskala oso zabalekoak izanik, ezingo lirakeke aldi bakar batean burutu, eta horregatik, lehenetasunak finkatu beharko lirakeke. Lehenetasun horiek finkatzerako orduan ezinbesteko herraminta izango dira parte hartze prozesuak eta auzotarren konpromezua.


Arazo orokorraren barruan, auzoaren identifikaziorako kalitatezko espazio publiko baten beharra ikusita, birgaitze proiektuaren abiapuntu gisa erreferentzia izango den puntu batekin hastea beharrezkoa izango da. Lehenengo interbentzio honek gainera Smart City proiektuak balioan jartzen duen energia berriztagarri bidezko berokuntza sistemarentzako lekua proposatu behar du, hau bezalako azpiegitura batek auzoan duen eragina, fisikoa zein estetikoa ahalik eta onuragarrienak izan daitezzen. Bide honetatik, Aldabe atzeko etxesaila aukeratu da, egun hutsik dagoen eremu handiena izateaz gain, auzoa hiriarren erdialdearekin lotzen duen traman puntu garrantzitsua da, alde zahar osoa inguratzen duen plaza sistema baten muturrean egonik eta auzotik pasatzen diren zeharbide garrantzitsuenen bidegurutzetik hurbil egonda. Etxesail honen berregiteak gainera, eskala handiago batean eragin positiboak eragingo ditu, bertan eduki handiko aparkaleku bat jarrita, auzoko kaleetatik aparkaleku asko kentzeko aukera lortzen baita, peatonalizazio eta auzoaren amabilizazioan aurrerapausuak lortuz.

Azkenik, behar pragmatikoenei loturik, proiektu energetikoak aurrera egin dezan biomasa galdara bat eraikitzea ezinbestekoa da. Galdara hori etxesail honetan kokatzea aurreikusita badago ere, legislazioak etxesailen barruan agertzen den pegote berri bat gisa aurreikusten du. Adesio bidezko gehiketa honen ordez, superposizio bat planteatzen da, jada eraikita dagoen egitura bat aprobetxatzea honen barruan eta gainean galdara kokatzeko. Galdara izateaz gain, eraikinak bestelako erabilerak bilduko ditu bere barnean, auzoari eskainitako espazioak batetik, taberna eta erakusketa gela bezalaxe, eta gai teknikoetarako lotutako beste espazio batzuk, galdararen kontrol eta mantenu gelak, eraikin honen eta lurrazpiko garajearen aireztapenerako sistema guztiak eta biomasaren eta antzeko berokuntza sistemen inguruan ikertu edo lan egiteko bulego eta gainerako zerbitzuak.

Laburbilduz, proiektu honekin bilatzen dena eraikin soil batetik haratago doan interbentzio bat planteatzea da, eraikin batek eta bere inguru hurbilaren eraldaketak eskala zabalago batean sinergiak eta eragin positiboak sortzea, interbentzio puntual baina elkarren artean lotu eta eskema orokor bati jarraitzen diotenen bidez hiri zati zabal bat eraldatzea lortzea.



Gaur egungo egoera:



1 2 3

1 Errepide sarea:

Etxebizitza irlak errepidez inguratuta daude, gehien gehienetan alde bietan aparkalekuak dituztelarik eta espaloiak nekez iristen direlarik 2.5 metroetara, baita etorbide nagusietan ere.

2 Lurzoruaren okupazioa:

Etxesail ia guztiak oso trinkoak dira eta auzoko lurzoruaren %80 inguru dago eraikita edota elementu pribatizatzaileek okupatuta.

3 Etxebizitza:

Etxesailen perimetroan kokatzen dira, fondogutxikoak izanik gehienetan. Barnealdean patio handiak agertzen dira, lokal komertzialek guztiz okupatuak.

Potentzialak



4 5 6

4 Barne hutsuneak

Etxe irlen barrenean zenbait espazio isolatuta geratu dira eraiki gabe. Gehienak erresidualak badira ere, badaude zenbait tamaina handikoak


5 Garajeak:

Edukiera handiko garaje asko daude etxesailen patioetan kokatuta. Auzoko eskariak gain Alde zaharreko biztanleen autoak goretzeko ereerabiltzen dira garaje hauek. Haietako zenbait, eta baita behe komertzial ugari ere hutsik daude gaur egun.

6 Plaza edo espazio publiko irekiak:

Gasteiz osoan espazio publiko eta berde gutxien duen auzoa da Koroazio auzoa, alde Zaharrekin batera akaso. Zenbait plaza egon arren, hauen urbanizazio zahar eta kaxkarrak asko mugatzen du haien fintzionaltasuna.

Etorkizuneko egoera



7 8

7 Lurzoru ibilgarriagoa:

Bi momentu:

1 Etorkizun hurbila: Egun existitzen diren plazak birkonfiguratu, txukundu, eta hobetu, zenbait kale peatonalizatu eta autoaren presentzia murriztu.

2 Etorkizun erdi-luzea: Etxe irlen artean pasabideak irekiz eta barne hutsuneak konektatuz pabilioi eta garajeak kenduz edo fragmentatuz, irlen barnean plaza domestiko bidezko sare bat egingo litzateke, kasuan kasu batzuk publiko eta beste batzuk pribatu izanik. Barnealde hauetan eta desokupatutako eraikin atalak aprobetxatuz aktibitate berriak sortzeko aukera legoke.

8 Espazio publiko sarea:

Konexio berriek espazio publiko ezberdinen, zaharren eta berrien arteko distantziak erosoago eta atseginoago egingo lirateke, hurbiltasuneko jarduerak sustatuz..


aUZO ESTRATEGIA

Auzoaren ezaugarri formal eta sozialak ezagutu ostean, egitura urbanoaren eraldaketa baten bitartez gizartean eragin positiboak dituzten jarduerak aktibatze guneak sortzea izango litzateke epe luzerako helburua. Eraldaketa formalaren bidez soilik ezinezkoa da gizarte bat eraldatzea, horregatik parte hartze prozesuek, proiektuaren asimilazioak eta bizilagun, antolatzaile eta erakundeen arteko hartuemanak ezinbestekoa da. Edozein aldaketa sozial gizartetik bertatik jaio behar da, ezin da inposatua izan.

Honegatik, proiektuaren hautaketa bideratu duten ataletako bat udalak zein Eusko Jaurlaritzak proiektuaren garapenari ematen dioten trataera inposatzailea da. Hainbat eragileren hitzetan, alde aurretik erabakitako gidalerro batzuk markatu dituzte erakunde publikoek eta auzokideek haietara egokitu besterik ez dute, negoziatzeko, hitz egiteko eta orokorrean demokratikoki parte hartzeko aukera errealik gabe.


Birgaitze proiektu bat dagoenari tentuz erreparatuz hasi beharra dago, eta hirigintzaz jarduten dugunean, aurreesistentzia hori gizarte aktibo eta dinamiko bat da. Gizarte hau gabe proiektu bat diseinatzea eta betearaztea errealitate praktiko batetik oso urrun dago eta elkarbizitzaren funtsak urratzen ditu.

Hau honela, auzo mailako erabaki serioak hartzen eta urbanizazio eta pabimentazio obrekin hasi aurretik, auzokideekiko parte hartze saioak, bilerak, hizketaldiak eta antzerakoak burutu beharko lirateke, eskari errealean aurrean soluzioak eman ahal izateko, ez itxurazko problematika modu teknikoan konpontzeko.




Eremua:

Aldabe gizarte etxearen atzeko aparkalekua, 5.000m karratu.




Eraispinak:

Inguruko elementuetatik hurbilegi eta egoera txarrean dauden etxebizitzak. Arriaga Garajearen alboetako hegalak. Koroazio kaleko 20. zenbakiko etxebizitzaren komertzioak.




Aparkalekua:

Eraispinekin desagertzen diren 220 aparkaleku plazak ordezkatu eta 140 gehiago gehitzen dituen 3 solairukolurpeko aparkalekua eraiki, sarrera Koroazio kaletik.




Okupazio berria:

Etxesailaren barnealdea perimetralki inguratuko du, erdialdean beso bat irteten zaiolarik.




Zokaloa:

Perimetro osoan zokalo eran gorputz bateratu bat sortuko da bere barnean kanpoaldearekin lotura bermatzeko pasabideak utziko dituen eta eraikinetarako sarrerak batuko dituen.




Artefaktuak:


Basamentu honen gainean elementu arinagoak kokatuko dira. Etxebizitzak alde batean eta galdaren eraikina osatuko duen bolumena eraikin nagusian.




- 1 Aurretiko egoera:**
Gure kontesur urbanoan, plaza atzealde gisara dago ulertua, jatorriz betea izan behar zuen etxesail bat hurbik geratzen da eta kualifikatu gabeko esparru bihurtzen da, interes estetiko gabea eta erabilerarako zaila.




- 2 Oinarri estrukturala prestatzea:**
Barne patio horren geometriari egokitzeko modulu aurre-determinatu bat erabiltzea oso konplexua izanik, eremuaren irregulartasun hori deuseztatuko duen oinarri elementu bat sortuko da. Elementu honek bere barnean jasoko ditu zokaloaren forma konplexuak, bertan gara daitezkeen aktibitateek errezago onartzen baitituzte forma hauek.




- 3 Komunikazio nukleoa kokatzea:**
Hasieratik eraiki beharreko elementu bakarra komunikazio nukleoa da, hau eraikinaren altuera maximo-raino eraikiko da, etxebizitzak hazizeta txertatuz doazen heinean nukleoa aldatzen hoatea errekurtsio xahutze bat izango bailitzake.




- 4 Piezak txertatu:**
Modulu guztiak aurrefabrikatuak, amaituak eta ordezkagarriak dira, beraz eraikinaren edozein tokitan kokatu daitezke. Bizilagunek etxebizitzamoduluak erosten joan ahala hauek txertatu egingo dira eta modu organikoan hazi egingo da eraikina.



- 5 Ekosistema berria:**
Bata bestearen alboan jarrita, dorreetan pilatuta edota bloke exento gisara, konfigurazio ugari jarraituz sortzen dira etxebizitzak hauek, eta hiriaren edozein puntutan kokatu daitezke, hiri hutsuneak betez edo auzo berri osoak konfiguraturaz.



Sarrera beti leku berean mentenduaz, etxebizitza aukeratutako modulo, akabera eta barne antolaketaren arabera konfigurazioak alda daitezke. Erdian banda ezea egongo dela kotutan izanik, eguneko eta gaueko espazioak naieran antola daitezke, irekitasun eta tipologia dibertsitateari leku emanez.



Plaza:
 Auzoaren elkargunea, jolasak, elkarriketak hitzartutako eta hitzartu gabeko topaketak gertatzen diren hiriko egongela.
 Plaza baten konfigurazioak ausari leku eman behar dio, erabilera bakarraren gordailu izan ordez edozein aktibitate bertan eman daitekeela bermatu behar du. Aldi berean, parean duen ekipamenduaren aurrekari izanik, honekiko hartueman eta solasa argia izan behar da, ez bata bestearen menpekoea baizik eta kolaborazioakoa.


Sarrera:
 Kale eta barneraren arteko bidean atsedena izan daitekeela bermatu behar du. Aldi berean, parean duen ekipamenduaren aurrekari izanik, honekiko hartueman eta solasa argia izan behar da, ez bata bestearren menpekoea baizik eta kolaborazioakoa.

Ekipamendua:
 Funtzio ugari izan behar duen erabilera bakarraren berokuntza eratu eta gelak auzokideen bizitzaren munitate irits daitezkeen espero da.
 Honetarako auzoaren berrakibazioan lagundu dezaketen ikastaro eta saiok burutzeko espazio bat planteatzen da.

Patioa:
 Eraikinaren arnagunea, atsedenerako zein elkarriketarako bide ematen digu kalera iriteak suposatzen duen deskonexioa pairatu gabe.

Etebizitzak:
 Sotoaren apropiazioa

Hiriko mugimenduen gertalekua.



Horma, kaletarraren eta publikoaren arteko filtro gisa:

Harlangaitz eta hormigoi ziklopeoz egina bere oinarrian eta kalitate zalantzagarrizko horma honek ez du bere horretan balio gehiegirik. Jatorriz garaje soil gisa eraiki zen eta funtzio hori bete izan du urte luzez, inoiz patio izan ez zen baina inondik inora plaza bilakatu ez den hiriaren hutsune bati begira.

Hutsune zena bete bihurtuko da oraingoan. Bizi eta aktibitatez bete hain zuzen ere eta honek espazioaren izaera guztuz aldatuko du.

Eraikinak bere partetik gizarte bideratutako aktibitateei emango die ostatu, eta honek espazio mortu bat erabiltzera behartuko du. Honela, publikoa eta kaletarra elkarren pare jartzen dira.

Kaletarra eta publikoa dena den ez dira gauza berdina, gizartearen espresio badira ere. Jarduera kaletarrak askatasunerako joera du, aisiarekin lotuta egonik. Publikoa ordea gizabanakoak gizartearen parte den heinean honekin zuzen jarduteko espazioa da, pertsonak kolektiboan parte hartzen du, aktiboki zein pasiboki, baina gizartearen funtzionamenduari bat egin du.

Bi jarrera hauen artean filtro bat egon beharra dago, egoteko modu eskatzen baititu bakoitzak. Hormigoizko horma zahar eta zatarrak, partzialki naturan murgildua, kaleko indarra geratzen duen lehenengo mintz bat da, publikoaren esparruan sartzeko gure baitan biltzera eta nolabait aktibitate berriak eskatzen duen patxada eta "seriotasuna" berreskuratzeko gonbita ematen diguna.


Banda batzuek osatzen dute programa, kaletik publikora, publikotik pribatura eta pribatutik berriro kalera ematen den trantsizio bat da. Erabilera bakoitzaren artean harreman bat dago eta harreman ezberdinek trataera ezberdina osatzen dute. Eraikin publiko batean nolabaiteko patxada edo lasaitasuna espero daiteke bertan gauzatuko diren aktibitateak erositasunez burutzeko, hori dela eta tarteko bide batek koltxoi funtzioa egiten du, benetan akustikoki ez bada ere, bai sinbolikoki behintzat. Eraikin publiko eta etxebizitzaren artean gune ategin bat agertzen da, auzokideekiko jentiltasun ikutu bat, eraikinaren alde naturala auzokideekin ia partekatzen dela esan litekeelarik.

PLANOAK



Oinak


Estalki plano:
Eskala: 1/500



Inplantazioa:

Proiektua kokatzen den eremua geometria konplexukoa eta elementu ugari jositua da. Etxesail triangeluar amaitugabe baten barnean, hutsuneak betetz bezala eraikin desberdinak sortzen joan dira. Kasu batzuetan eraikinak kale nagusiei lerrokatuta daude eta besteetan etxesailaren barrurantz hedatzen dira, etxebizitza zein ekipamendu izanik.

Proiektuak hutsuneak osatzen duen espazioa birkualifikatzea bilatzen du, eta honetarako, hau perimetralki okupatuko du, egun atzealde direnak aurrealde bihurtuz eta eraikinen artean kalitatezko eta izaera identifikatzeko errazak diren espazio publikoak sortuz.



Plaza segida:

Elkarren segidan lerrotatuta dauden hiru plaza eratuko dira ekialde mendebalde norabidean, biomasa galdararen eraikinari perpendikular. Plaza hauek lehenengoaren irekitasun eta definizio ezetik tarteko plazaren gerizpe goxo eta lasaira doaz, etxesailaren barnealdea hartzen duen espazio publiko berri honi izaera ezberdin ugari emanaz.

Proiektuaren iparraldeko mugan zerbitzu banda bat osatzen da, negozio, bulego, bizikleta aparkaleku eta beste funtzioak izan ditzakeen definizio gehiegirik gabeko banda bat, beharren arabera erabilia izango dena. Aldi berean, sototik datozen aparkalekuen sarrerak banda honetan azaleratzen dira, plazaren erdian elementu arrotzak ekidinez.

Azkenik, etxebizitzetarako komunikazioa ere bertatik egiten da, barne patioa kanpoaldearekin lotzen duen etxadien zulaketa bezalaxe.


Aparkalekuko oinak:

Eskala: 1/500




APARKALEKUA:

3 solairuko lurrazpiko aparkalekua dugu. Honen gainean plaza eta eraikinak izango ditugu kokatuta, beraz aparkalekuaren egiturak gainean dituen erabilerekiko bateragarria izan beharko du. Ekialdeko muturrean gainera, aparkalekua galdara eraikineko sotoan daoen galdara gelarekin dago konektatuta, honela aireztapen sistemak bateratzea lortzen baita.





Bestalde, proiektua gaur egun aparkaleku diren bi eremutan (plaza eta Arriaga parkinga) kokatzen denez, jada goiak jota dagoen aparkaleku kopurua murriztuko litzateke. Honetarako, edukiontzi berriak 358 aparkaleku plaza izango ditu, ezabatzen direnak baino 108 gehiago, inguruko etxesailetan burutuko diren peatonalizazio proiektuak bideragarriago eginez.

EGUNGO EGOERA




PROIEKTUA



Behe solairua:

Eskala: 1/200



1. Solairua

Eskala: 1/200




Galdaretarako sarrera:

Gaur egun aparkalekua den eraikinaren sarreratik egingo da bulego eta galdararen kontrol geletarako sarrera. Altuera bikoitzeko espazio batek argia beheko solairura iristea ahalbidetzen du, bestela ilunpetan egongo litzatekeen espaziora.

Taberna- Jatetxea:

Lehenengo solairuan terrazarekin komunikazioa duen jatetxe bat egongo da, sarrera eraikinaren barnetik zein kanpotik egin daitekeelarik.




2. Solairua:

Eskala: 1/200



Areto multifuntzionala:

Azken solairuan erabilera anitzeko gune bat egongo da, estalkia osatzen duen zer-txak guztiz diafano egingo duen espazioa hain zuzen ere. Biltegiak jarduera ezberdinetarako beharrezko materiala biltzeko balio dute.



Ebaketak

A Ebaketa:
Eskala: 1/100

Filtroak:

Eraikin nagusirako sarrera plazatik, filtro ezberdinak gurutzatuz burutzen da. Gara-jea zenaren fatxada zaharrak lehenengo muga birtual bat osatzen du eraikinaren aurrean, hau ukitu gabe, tarte gune bat sortzen du, hestua eta luzea, arrapala baten bitartez sarreraraino bideratzen gaituena.

Eraikinean beheruntz sartzen bagara ere, segituan goruntz begiratu beharko dugu, espazio hirukoitz batek ematen baitugu ongietorria. Atrio honek solairu guztietako komunikazio guneak harremanetan jartzen ditu, eta eraikinaren hiru solairuetatik sarrerarekiko harremana mantentzen da. Behe solairua zabala eta nahiko irekia da, erabilera administratiboetara eta soilik egotera bideratuta, baina bertatik, azken filtro bat zeharkatuz bulegoetara ailegatu gara. Bide osoa konstriktio eta zabaltzeen arteko joko bat da, lurrari lotutako hormigoiei dentsu eta airean arin eta argitsu igotzen den altzairuaren arteko joko bat.

Terraza:



Eraikin berria eta etxebizitzien artean, egoera erdiestalia aprobetxatuz terraza bat kokatzen da, lehenengo solairuko tabernari lotua

Atrioa:

Hiru altuerak lotzen dituen espazio irekia da, egitura portikatua lehenengo habearte hau osoa komunikazio nukleo gisa dago prestatuta.


Sarrera:

Beheranzko sarrera da, eskailera zein arrapala bidez egin daitekeena eta eraikin publikoaren plazaren eguneroko erabileratik sinbolikoki banatzen eta airea ematen laguntzen duena.



B Ebaketa:

Eskala: 1/200



Siloa eta kontrol gela:


Hormigoizko egitura duen eraikinak biomasa galderekin zuzenean lotuta dauden erabilerak biltzen ditu, kontrol gelak eta bulegoak lurgaineko solairuetan eta erre-gaia biltegitratzeko siloak lurrazpiko gela batean. Lur mugikorreko siloak izanik, deskarga plazatik egiten da eta eraikin barruko distribuzioa eraikinaren beste puntan dago.

2. Solairuko eremu polifuntzionala.

Bigarren solairuan espazio ireki zabal bat sortzen da erabilera ezberdinak bil ditzake-elarik, bilerak, ekitaldiak, erakusketak...

Deskantsurako guneak:


Eraikinak, bai patio ingelesaren bidez eta bai terraza honen bidez lasaitasunerako txokoak sortzen ditu. Txoko hauetako batzuk eraikineko langileek soilik erabil ditzakete, beste batzuk ordea kaleari zuzenki lotuta daude, bezero potentzialen kopurua nabarmen haziz.



D Ebaketa:
Eskala: 1/200


Makina gela:

Sotopeko makina gela honek eraikin publikotik zein plazapean dagoen aparkalekutik ateratzen ditu gasak, eraikin nagusian integratuta dagoen tximinia baten bitartez.



Sarrera bikoitza:


Fatxada zaharraren alde banatatik sar gaitetze eraikinera, arrapala bidez iparraldean eta eskailera bidez hegoaldean.



E Ebaketa:

Eskala: 1/200

E



Deskantsurako gunek:

Eraikinak, bai patio ingelesaren bidez eta bai terraza honen bidez lasaitasunerako txokoak sortzen ditu. Txoko hauetako batzuk eraikineko langileek soilik erabil ditzakete, beste batzuk ordea kaleari zuzenki lotuta daude, bezero potentzialen kopurua nabarmen haziz.

Etxebizitza modularrak:

Behin base solido bat badug, honen gainean pilatuz doazen etxebizitza moduloak planteatzen dira, trukagarri eta adaptagarriak. Etxearen barne konfigurazioa ez ezik, fatxadak ere aldatzeko izango dira, espazio pribatu ibxia handitu edo murrizteko bako.

Garajerako sarrerak:


Plaza azpian 360 auto ingururantzako aparkaleku bat egonik, pertsona kanitate handia jasoko duen eremua izango da. Sarrera bat eta oinezkoentzako hiru irteera izango ditu.

Plaza segida:

Eraikinaren pertzeptzioa zenbait filtro bidez deskubritzen badugu, plazak ere pabimentazioaren zein hiri atonduren bidez izaera ezberdineko eremuetatik pasako gara azkeni.

Patio ingelesa:

Eraikin berriak zaharra ukitu ez zezan, patio bat sortzen da. Pato honek etxeen sotoei argia emateaz gain, oina distribuitu egiten du, zaharraren eta berriaren arteko dikotomia argituz.



Atal Teknikoa

Instalakuntzen eskema:

Eskalak: 1/500
1/750

Eraikinaren helburua errekurtsuak optimizatzea da eta eraikinak eta bere inguruak errekurtsu berberak aprobetxatzea bilatzen du, instalakuntzetako batzuk partekatuz.

Ura:

Eraikina auzo mailako galdara bat den neurrian, potentzia handiko biomasa galdara batzuk izango ditu eta baita bolumen handiko ur deposito batzuk ere, auzo mailako ur eskariari aurre egiteko. Aldi berean, eraikinaren beraren ur bero hornidura galdara hauetatik burutuko da zuzenean.

Auzo osoaren eskaria asetzeko 10.000 KWko potentzia instalatzea soberan izango da beste leku batzuetan eginiko antzeko proiektuak erreferentzia hartuta. 1.312 etxebizitza hornitzeko 7.000 kw nahikoa izanik. Honela Eos Uniconfort motako 2 galdara (5.000kw bakoitza) kokatuko dira eta hauetan sortzen den ur beroa biltzeko 40.000 litroko hiru andelarentzako lekua aurreikusten da.

Ponpaketa sistema guztia eraikinaren sotoan dagoen gela tekniko batean aurreikusten da, aireztapen sistemarekin batera.

Aireztapena:


Bai galdarek eta baita aparkalekuak ere airearen berritze eta ebakuazio sistema potente baten beharra dute. Bi sistemak elkartzean, espazioa optimizatzeaz gain, tximinia elementuak sortzen den plaza berrian agertzea ekiditen da.

Leienda:

- Ur hotza: 
- Ur bero sanitarioa: 
- Elektrizitatea: 
- Airea barneratu: 
- Airea kanporatu: 
- Saneamendua: 






Legenda:

- 1 Nibelazio ho
- 2 Drenaia tutua (15mm)
- 3 Iragazkaizatasun lamina
- 4 Delta Draniadura
- 5 Hormigoizko karga horma barneisolatua (100,100,300mm)
- 6 Bi horrien arteko konektorea
- 7 Isolamendu termiko trinkoa 50mm
- 8 Petoaren tantakin babeslea
- 9 Uniformizazio mortairua
- 10 Isolamendu termikoa 100mm
- 11 Geruza iragazkaitza
- 12 Drainadura filtroa
- 13 Lur naturala
- 14 Drainadura geruza
- 15 120x150mm L perfil metalikoa
- 16 Polikarbonatozko fatxada bikoitza
- 17 Zinkezk isurkina
- 18 Fatxadaren aireztapen sistema.



Eraikuntza xehetasunak:

Eskalak: 1/500
1/750




- 19 Isolamendu termikotrinkoa
- 20 Metalezko txapa grekatuzko oinarria
- 21 50x50mmko metalezko montanteak.
- 22 Zink plegatuzko estaldura.
- 23 Zinkezko gailurra
- 24 Isolamendu trinkoa
- 25 Eguzki panela
- 26 50x50mmko tutuz eginiko burdinezko montanteak.
- 27 Zinkez eginiko kanaloia, behealdea
- 28 Zinkez eginiko kanaloia, gailur perimetrala.
- 29 Ftxada eta egituraren arteko konektorea
- 30 Zinkezko tantakina
- 31 Egurrezko atearen markoa
- 32 Beirazko ate irristagarri bikoitza
- 33 Geruza iragazkaitza
- 34 Malda
- 35 Lur trinkotua
- 36 Apaberako pabimentazioa.

Egitura sistema:

Eraikinak bi egitura sistema ditu, Hormigoizko karga hormaz eta zutabe bidez egindako basamentua eta altzairuz egindako eta honen gainean apoatutakokatutako bigarren gorputz bat. Hormigoizko karga hormak in situ fabrikatuak izango dira, tartean isolamendua sartuta dutelarik bi geruzen artean.

Fatxadari dagokionez, orri biko polikarbonatozko fatxada bat du, zeinaren barrualdetik jaitxiko diren estalkian zertxen artean bildutako euri urak. Fatxada hau udan eguzkiak berotu egingo du, bere barrenean aire korranteak sortuz eta eraikinaren egoitzen gehiegizko beroketa ekidinez. Aire bero bildu hau kanporatu ahal izango da fatxadak goialdean dituen tranpilen bidez.



BIBLIOGRAFIA:

- Ciudad sostenible, rehabilitación arquitectónica y regeneración urbana. José Fariña Tojo. Monografías de la Revista Aragonesa de Administración Pública 26 ISSN 1133-4797, XV, Zaragoza, 2013, pp. 15-26
- Desarrollo urbano sostenible en ciudades intermedias europeas. Ejemplo de Vauban.
- Una Experiencia de Participación Comunitaria de Regeneración del Espacio Público. Héctor Berroeta-Marcelo Rodríguez. Revista Electrónica de Psicología Política Año 8 Nº 22 – Marzo – Abril 2010
- La regeneración urbana en España. Revisión crítica para un estudio de caso de regeneración sostenible. SUSANA MORENO S. * + FRANCISCO JAVIER GONZÁLEZ G. ** + ALBERTO GÓMEZ N. ***
- Gasteizko alde zaharreko espazio urbanoan eginiko eskuhartzearen ondorio sozialak eta gizarte laguntzaren erantzukizuna. Aitor Arrazola Valle. Gizarte laguntzako gradu amaierako lana. Gasteizen, 2017ko irailak 14.
- Análisis de la oferta inmobiliaria en Vitoria-Gasteiz. Pisos y locales usados. Febrero de 2016
- Diagnostico de las necesidades de intervención en la renovación del parque edificado de la CAPV. TECNALIA.Documento Nº 000374\IN\CT\11/03 (v01) Diciembre 2011.
- AZALA. Guía de la rehabilitación energética integral de la envolvente de los edificios en Euskadi manual de buenas prácticas en la rehabilitación energética integral de los edificios. Luzyespacio arquitectura.
- Un Urbanismo docente. Zenbait Idazke.
- La calle y la casa, urbanismo de interiores. Xabi Monteys
- Casa Collage. Xabi Monteys. Pere Fuerte
- Arquitectura y crítica. Josep Maria Montaner
- Arquitectura y política. Josep Maria Montaner. Zaida Muxi.
- Rem Koolhaas. Acerca de la Ciudad.

Informazio iturriak:

- Gasteizko Artxibo historikoa
- Gasteizko Udaleko Hirigintza saila
- Gasteizko Udaleko web orria, hirigintza atala
- Arabako Foru aldundiko katastroa.